




**Momo Jainkoa
Dios Momo
2010**

IFK-CIF Q20005411
10131n | 2009-11



**Kartela
Cartel**

Donostia Kultura

Festak • Fiestas

Konstituzio Plaza, 1 • 20003 Donostia-San Sebastián

tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177 • donostiakofestak@donostia.org

MOMO JAINKOA 2010 DIOS MOMO

JOSE MARI ARRIETA IRIZAR

Izen - abizenak / Nombre y apellidos: Jose Mari Arrieta Irizar

Adina / Edad: 59 urte / años

Donostia - San Sebastián

Jose Mari Arrieta Irizar altzatarra dugu, Lau Haizetako Illarregi baserrikoa. Gaur egun 59 urte ditu eta Donostiako inauterietan ezinbesteko pertsonaia bihurtu zaigu.

Urte hauetan guztietan zehar aukeratu dituen mozorroak ugariak eta orotarikoak izan dira. On Kixote eta Sancho Panza gisa ikusi genuen 1987an bere lehengusuarekin batera. Urte hartako arrakasta izugarria izan zenez, 1994an, eta herritarrek hala eskatuta, pertsonaia berak atera zituzten kalera.

Urtebete beranduago, 1995ean, Joxepa amonari omenaldia egiteko asmoz, "Saltxi" txakurrarekin eta barazkiak zeramatzan astemearekin batera, Donostiako kaleetan barna abiatu zen Joxepa amonaren papera antzetzuz.

Hurrengo urtean, berriz, aukeratutako mozorroa Txina urrunetik iritsi zen. Maite alabaren laguntza izan zuen urte hartan (baita aurtengo, 2010eko, segizioan ere), gure kaleetan gora eta behera zebilen "txinatal txilo" haren gurdia bultzatzen zuena izan baikenuen alaba. Berriz ere ikusi ahal izan genuen, 1997an, bere kide fidelekin: "Saltxi" eta astemearekin; orduan, bete beharreko papera txantxilgilearena izan zen.

Jose Marirentzat, 1998 urte berezia izan zen. Aurreko urteetan bezalaxe, Donostiako inauterietan parte hartzeraz animatu zen eta Donostiako Udalak dirua bildu eta saharar herrira bideratu nahi zuenez, bere artzain-mozorroak ekimena lagun zezakeela pentsatu zuen Jose Mari. Ezustean, mozorroarekin batera inguruan zituen aharia eta ardiak zozketatzea proposatu zuen. Jasotako dirua saharar herrira bidali zuten. Urte hartan "Urrezko Sardina" jaso zuen.

Oraindik "sor Citroën" hura gogoratzen duten donostiar asko dago. Baina gutxi daki 2007ko urte hartan, inauterietako larunbateko desfilea autoa bultzatuz egin behar izan zuela, motorrak ez baitzuen martxan jarri nahi; jendeak parodia zela pentsatu bazuen ere, desfilea leher eginda bukatu zuten "bultzatzaileek".

Pasa den urteko edizioan ere pertsonaia ezagun bat hartu, "Carmen arrain-saltzailea", eta pertsonaiaren inguruko ikuspuntu berezia eskaini zigun.

Jose Mari Arrieta Irizar es altzatarra, del caserío Illarregi de Lau Haizeta. En la actualidad cuenta con 59 años y es uno de los hijos del carnaval donostiarra.

Son muchas y variadas las caracterizaciones que, a lo largo de estos años, ha adoptado. Ya en el año 1987 salió junto a su primo caracterizados ambos como Don Quijote y Sancho Panza. Fue tal el éxito que obtuvieron que años después, en 1994 y a petición popular, repitieron con esos mismos personajes.

Un año después, en 1995 decidió tributar un homenaje a su abuela Joxepa y junto a su perro "Saltxi" y una burra cargada de verduras decidió salir por las calles donostiarras adoptando el papel de la Amona Joxepa.

En 1996 el disfraz escogido provenía de la lejana China y con la inestimable ayuda de su hija Maite (componente de su séquito en este 2010) que era la que empujaba el carro emuló a "un poble chino" que deambulaba por las calles de nuestra ciudad. En 1997 volvió a repetir salida con sus fieles compañeros: el "Saltxi" y la burra; su papel fue el de botijero.

Para Jose Mari, el año 1998 fue un año especial. Al igual que en años anteriores se animó a participar en el carnaval donostiarra y dado que el Ayuntamiento de Donostia - San Sebastián quería recoger fondos y destinarlos al pueblo saharauí, a Jose Mari se le ocurrió que su disfraz de pastor podría aportar algo a esta iniciativa. Ni corto ni perezoso propuso organizar una rifa en la que sorteó el carnero y las ovejas que le acompañaban como parte de su disfraz. El dinero recaudado fue destinado al pueblo saharauí. Este año fue galardonado con la "Sardina de Oro".

Todavía son muchos los donostiarras que recuerdan a "sor Citroën". Lo que pocos saben es que ese año 2007 en el desfile del sábado de carnaval lo tuvo que hacer empujando el coche ya que éste se negaba a arrancar; la gente pensaba que se trataba de una parodia cuando en realidad tuvieron que sudar la gota gorda para finalizar el desfile.

La caracterización más reciente es la del año pasado donde nos ofreció su particular imagen de "Carmen la pescatera".

Jose Marirentzat, inauteriak poztasun, dibertsio, laguntasun eta kidesunaren sinonimo dira. Inauteriak, ordea, ez dira desfile edo festa-egun jakin horietara mugatzen. Jose Marirentzat, aurretik dakarten lan guztia, familiak edo taldeak ideiak bilatzeko biltzea, entseguak egitea, arropak eta karrozak egitea eta abar luze bat dira inauteriak.

Egindako lan hori guztia desfile eta irteeretan islatzen da, han jasotzen baitira "kalean dagoen jende andanaren begirada, irribarre, txalo, keinu... guztiak. Une horiek dira hurrengo urtean irteteko indarra eta goxoak ematen dizkigutenak".

Para Jose Mari, el carnaval es sinónimo de alegría, diversión, amistad y compañerismo. El carnaval no se limita a los desfiles o a los días mismos de la fiesta. Para él, es todo el trabajo que ello conlleva, el hecho de juntarse las familias o los grupos para buscar ideas, ensayar, confeccionar trajes y carrozas, etc, ...

Todo ello se plasma en los desfiles y salidas donde "es de agradecer muchas miradas, sonrisas, aplausos, gestos, ... de muchas personas que están a pie de calle. Estos momentos son los que dan fuerza y ganas para salir al año siguiente".

LAGUN TALDEA / SÉQUITO

- ☒ MAITE ARRIETA ORMAZABAL
- ☒ RICARDO CINTERO BARBERO
- ☒ MARÍA RODRÍGUEZ FERNÁNDEZ

Momo Jainko gisa 2010eko bere agintaldian, Jose Mari albean izango ditu bere alaba Maite eta Ricardo eta Mariak osaturiko bikotea. Maitek Jose Mari : lagundu izan du zenbait inauteritako mozoerretan: Ricardo eta María, berriz, Santa Barbara konpainia kide dira.

Durante su mandato como Dios Momo 2010, Jose Mari estará acompañado por su hija Maite y por el matrimonio formado por Ricardo y María. Maite ha acompañado a su padre Jose Mari en algunas de sus caracterizaciones carnavalescas mientras que Ricardo y María forman parte de la comparsa Santa Bárbara.



JOSE MARIA ARRIETA IRIZAR

**MOMO
JAINKOA**

2010

**DIOS
MOMO**



INAUTERIAK - CARNAVALES

KARTELA - CARTEL

Egilea / Autor: HAATIK Diseinu eta komunikazioa
Donostia - San Sebastián

Haatik diseinu eta komunikazioa lantzen duen sorkuntza berriko enpresa bat da. Lan egiten zuten enpresaren itxierarekin, krisi garaian, proiektu berria sortu zuten gazte ekintzaile batzuetatik jaio zena. Errealitatea bilakatzen ari den proiektua, urte bakar batean gipuzkoa mailan bere tokia bilatu duen enpresa alegia.

Egilea

Donostiako 2010eko inauterietako kartelaren irudia Ibai Gonzalez Muga, Donostian bizi den baztandarra lideratzen duen talde kreatiboak diseinatu du. Lehiaketa publikoetara zalea gaztetik, Agenda21Baztaneko logotipoa da berea, baita Signes 10. Sariko ohorezko aipamena edo 2008ko Donostiako inauterietako kartelaren egiletasuna (aurretik lan egiten zuten enpresantzako) ere. Kartel honetan Iurre Aranburu Tainta diseinatzaileak (Aukeran Dantza Konpainia eta Localia, besteen artean) eta Yara Nuñez ("La Habanako "La Marumba" taldeko komunikazio arduraduna eta laburmetrai eta argazki saioetan ekoizpen -laguntzailea) copy lanetan hartu dute parte.

Kartela

Kartelaren irudiak bi ideekin jolasten du. "Amaigabeko festak" eta mamu-pertsonai baten sorkuntzaren ideia.

Inauteriak ameskeriaz beteriko mundu batera eramaten gaitu, modu batera edo bestera beste pertsona batean bilakatzen digun mundua, gure irudimen guztia askatuz. Mozorroak gero eta landuagoak sortzen dira, sekulako originaltasuna bilatzen ilusio handiz egun hauen zain dago jendea. Azkarregi pasatzen diren jaiak, inoiz bukatu nahi ez ditugunak, alegia.

Sardina-ehorzketa ideiarekin jolastuz fikziozko pertsonai bat sortu da. Bere heriotzatik ihes egin nahi duen sardina, eta horrekin, festen bukaeratik ihes egin nahi duena.

Horrela, John Sherwoodek 1954an zuzendutako "Creature from the black lagoon" edo Edward D. Wood, Jr-en 1955ko "Bride of the monster" bezelako 50. hamarkadeko serie Bko beldurrezko filmen edo orain dela gutxiko Tim Burton miresgarriaren "Mars Attacks" pelikulako posterren irudi kontzeptualaz baliatu gara

Haatik es una empresa de reciente creación dedicada al ámbito de la comunicación y del diseño gráfico. Un estudio que nació del espíritu emprendedor de dos jóvenes que en plena época de crisis y tras el cese de actividad de la empresa para la que trabajaban antes se aventuraron con este proyecto. Un proyecto que poco a poco se está convirtiendo en realidad porque con apenas un año de vida ya se están haciendo su hueco en el sector guipuzcoano.

El autor

La imagen del cartel de carnavales Donostia 2010 ha sido diseñada por el equipo creativo liderado por Ibai Gonzalez Muga, baztanes afincado en Donostia que lleva más de 4 años trabajando en el sector del diseño y la producción. Aficionado a los concursos desde su juventud, suyos son el logotipo de Agenda21 Baztan, una mención especial en el Concurso X edición el Premio Signes o la autoría de cartel de Carnavales de Donostia 2008 para la empresa para la que trabajaba anteriormente. En el diseño han trabajado la diseñadora Iurre Aranburu (Aukeran Dantza Konpainia y Localia entre otros) y la copy Yara Nuñez (responsable de comunicación del grupo creativo "La Marumba" en La Habana y asistente de producción en cortometrajes y shottings fotográficos).


El cartel

La imagen del cartel juega con dos ideas. El concepto de "que no acabe la fiesta" y la idea de crear un personaje-monstruo.

El carnaval nos traslada a un mundo lleno de fantasías en el que de alguna manera nos transformamos dándole rienda suelta a la imaginación. La gente piensa cada vez más el disfraz, buscando la originalidad extrema y espera con ilusión la fecha. Unas fechas que lamentablemente pasan rápido y que nunca queremos que termine.

Jugando con la idea de que el "entierro de la sardina" es el acto que cierra las fiestas se crea un personaje ficticio. Una sardina que quiere escapar de su muerte, y por lo tanto de ese final de fiestas. Un entierro al cuál se revela con todas sus armas (en este caso un extintor).

Así, se ha recurrido al concepto de imagen de los posters de las películas de cine de terror de serie B de los años 50 como "Creature from the black lagoon" dirigida por John Sherwood en 1954, "Bride of the monster" de Edward D. Wood, Jr de 1955 o la reciente "Mars Attacks" de 1996 del maravilloso Tim Burton.



IFK-CIF Q20005411
10131n | 2009-11

Donostia Kultura

Festak • Fiestas

Konstituzio Plaza, 1 • 20003 Donostia-San Sebastián

tel (0034) 943 481 168 • faxa 943 481 177 • donostiakofestak@donostia.org